

# XUXEN Hunspell Mac

## Eskuliburua



Egileak:



[ixa.si.ehu.es](http://ixa.si.ehu.es)



[www.eleka.net](http://www.eleka.net)

# Aurkibidea

<a href="#">XUXEN Hunspell Mac.....</a>	<a href="#">3</a>
<a href="#">Sarrera .....</a>	<a href="#">3</a>
<a href="#">Instalazioa.....</a>	<a href="#">3</a>
<a href="#">Erabilera.....</a>	<a href="#">4</a>
<a href="#">Safari.....</a>	<a href="#">4</a>
<a href="#">Chrome.....</a>	<a href="#">6</a>
<a href="#">Lizentzia.....</a>	<a href="#">8</a>


# XUXEN Hunspell Mac

## Sarrera

Mac OS X Snow Leopard (10.6)tik aurrera, OpenSpell.service izeneko zerbitzu berria dago, Hunspell zuzentzaileen erabilera ahalbidetzen duena. Horrela, sistemaren zuzentzaileak erabiltzen dituzten programek zuzentzaile horiek erabil ditzakete. Programa horien artean daude, esaterako, Safari, Mail, iWork eta TextEdit.

## Instalazioa

- Fitxategia jaitsi (**XUXENHunspellMac.zip**)
- Fitxategiaren barruan dauden bi hiztegi-fitxategiak ( **euskara.dic** eta **euskara.aff** ) *Librería /Spelling* karpetan kopiatu. Finder-a erabiliz, Disko gogorra ireki, gero *Librería* karpeta eta bertan dago *Spelling* karpeta.



## Erabilera

Aurreko atalean azaldutakoa nahikoa da zuzentzailea instalatzeko. Zuzentzaile ortografikoaren konfigurazioa eta erabilera, programaren arabera izango da.


Oro har, testua idatzi daiteken edozein kutxatan, saguaren eskuineko botoia sakatuta (edo Ctrl + Klik) menu bat aterako da ortografia aukerak konfiguratzeko.

Bertan, “euskara” hizkuntza aukeratzea nahikoa da.


Adibidetzat, Safari-n “euskara” nola aukeratu azalduko dugu.

## Safari

Testu-kutxa bat duen orrialde batean, saguaren eskuineko botoia sakatu (edo Ctrl + Klik) eta “Ortografía y gramática > Mostrar ortografía y gramática” aukeratu.




Ateratzen den leihoan, behealdean agertzen den goiti-beherako menuan, *euskara* (*Librería*) aukeratu.



Orain, testu-kutxan idatzitakoan, oker dauden hitzak gorriz azpimarratuta agertu dira.


Testu bat **xuxentzen** ari gara.

Gaingan eskuin botoiarekin klik egitean, zuzenketa-proposamenak agertuko zaizkigu.




## Chrome


Mac-erako Chrome-k, Windows-eko eta Linux-eko bertsioek ez bezala, ez du onartzen XUXEN Chrome instalatzea, baina aukera ematen du XUXEN Hunspell Mac erabiltzeko. Horretarako, nabigatu testu-kutxa bat duen orrialde batera eta saguaren eskuineko botoia sakatu edo Ctrl + Klik egin. “*Opciones del corrector ortográfico > Mostrar panel de ortografía*” aukeratu.



Ateratzen den leihoan, behealdean “*Automático por idioma*” jartzen duen goitik-beherako menu bat dago.



Bertan klik egin eta "euskara (librería) aukeratu.



Leioa itxi eta orain euskaraz zuzenduko da kutzako testua.

## **Lizentzia**

**GNU General Public Licence (GPL) 2. bertsioa lizentziapean argitaratua.**

**<http://www.fsf.org/licenses/licenses.html>**